

ANOETAKO KALE ERABILERAREN NEURKETA - 2006


Ondorio nagusiak

Hizkuntza egoerari buruz ematen diren datu gehienak, oro har, hiztunek inkestetan aitorturiko datuak dira (erroldakoak, inkesta bidezko ikerketak, etab.). Hau horrela da, besteak beste, erabilera modu errealean neurtzea ez delako erraza izaten. Soziolinguistika Klusterrak egindako neurketak **kalean behaketa zuzenaren bidez lorturiko datuak** eskaintzen dizkizue. Horretarako, gainera, oinarri metodologiko sendoa dugu. Soziolinguistika Klusterra (aurretik SEI Elkarteak) arduratzen da Euskal Herri mailan Kale Erabileraren Neurketa egiteaz eta, horrez gain, 60 bat udalerritan ere egin ditugu honen antzeko neurketak.


Hemen aurkezten ditugun datuak, **Anoetan 2006ko urrian egindako Kale Erabileraren Neurketaren datuak** dira. Gainera, 2006ko neurketa hau Anoetan egiten den lehenengoa ez denez, SEI Elkarteak 2001ean egindako neurketekin alderatu eta dagokion interpretazioa egin ahal izango dugu.

Jarraian dituzue ondorio nagusiak, laburbilduta:

1) Erabilera indizea % 69 da. Hau da, kalean behatu diren 100 elkarrizketetatik 69 izan dira euskaraz. 2001etik 2006ra 9 puntu igo da erabilera Anoetan.



2) Adin-taldeka: haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (% 85) eta jarraian gazteak (% 78). Gutxien erabiltzen dutenak, berriz, adinekoak dira (% 28). Helduen erabilera ere herriko batez bestekotik behera ageri da (% 53).



Bilakaera (2001-2006):

- 3 Haurren, helduen, eta bereziki gazteen erabilerak gora egin dute lau urteotan.
- 3 Adinekoen erabilera izan da jaitsi den bakarra.

4) Sexua: gizonetako emakumetako baino joera handiagoa agertu dute euskaraz hitz egiteko (10 puntuko aldea). 2001eko neurketan ere joera bera (orduan ere antzeko aldea: 11 puntukoa, hain zuzen).

5) Haurren presentzia: eragile garrantzitsua da, haurrak presente izanik erabilera hazi egiten baita.

- Haurrak mintzakide direnean (batez ere beraien artean, edo zuzenean nagusiekin hitz egitean), erabilerak nabarmen egiten du gora.
- Haurren presentzia soilak ez du eraginik nagusien erabileran.